

OTOITZA

Ze? da otoltea?

Noinok dagi itaun au: «Zer da otoitz egitea?» Gorantz egite bat, biotza ta adimena Jainkoagana jasotea. Ez dozu besterik? Ez, ez da orixe baino. Esaera labur onek asko dinosku otoitzari buruz. Au dinosku, esaterako: «Zelan, noiz eta zegaitik otoitz egin bear dot nik?» Baita, norbaitek itaundu leikegu: «Zelan, noiz eta zegaitik jardun bear dogu guk autuan, alkar-izketan, geure adiskiderik on, aberats eta aaltsuena danaz, gu-garean lez, pekatari, beartsu ta aulak izanik?»

Onako gai ta puntuetan ez daukazu inok eskolatu bearrik. Giza-biotzak —berezko senak— dirautzu zelan, noiz eta zegaitik itz-egin bear dozun, adiskideagaz mintzatzen zareanean. Ar-emonean sartu zara Jainkoagaz; egizu beste orrenbeste. Otoitz dozu ori. Santa Teresak dinosku: «Otoitza ez da besterik, gogozkoa batez be, nire ustez, maitasunezko artu-emon bat baino, sarri egonik bakarrean maite gaituana dakigunaz artu-emonean» (*Bizitza*, VIII Atalean).

Era bitan otoitz egin gengike: 1) *aoz*, eta 2) *pentsamentuz*. Edo-zein otoitz aoz esanaz egiten doguna, jakiiia, aozkoa da; pentsamentuzkoa, barriz, adimenari, ulermenari edo buruari lan eraginez, egin oi doguna. Biak ditugu era onak, baifia biak alkarregaz joan bear dabe: ezpanakaz bakarrik otoitz egitea, arrisku aundikoa da.

Aozkoa

Zer adierazoten ete dau aozko otoitzak? Miinaren eta ezpanen eraginez aitzen emoten daukuz adimenaren sorpenak, asmoak eta oldozkunak, biotzaren eraginak eta sentikizunak, eta naimenaren opa, uisi ta gura-izateak. Ao-gaia, alan be, ez da elburu bat; itzak tresna besterik ez dira, eurok daroezan pentsamentuak ostera balio aundia dabe. Otoitz bakoza on eta onurakor yatzu biotza Jainkoagana jaso erazten dautzun neurrian. Olan, aozko otoitzak bere balio ta indarra berau darabillaren asmo ta eratik artu oi ditu. Jaunagana jasoten dautzu biotza? Ona da zure otoitza. Ez dautzu jasoten? Zer esan? Ba-da zalantzarik.

Otoitzean artean aukeratzea egitera ezkeru, argitaratutako otoitz pillo eskergak daukazuz, onak eta askotarikoak. Indar berezia dabe, batzuk batez be, guri gauza suspargarriak gogorazo, barru-sua itxartu ta borondatea bizkortzeko indarra dabenak, Aita betikoari zuzenduak, Andra Mariari, federa ta goi-maitasunera garoezanak.

Eta oneik gitxi ba'litzaz, Mezako Iiburuak eta Orduen Liturgia otoitz bero ta goi-eragifizkpz beterik dagoz. Asko daukaguz Biblian, zein Testamentu Zarrean zein Barrian, edozein estualdifako eginak. Oso antxinatik datozenak dira beste batzuk be, eta gugafiaino eldu diranak, mamintsuak eta ulertzeko errezak.

Gure erri gizaldi luzeetan oso kristinau izan danak, ugari euki izan ditu otoitz-liburu eskuorrak, otoitzak parrastaka ekarrezanak, edozein une momentu, tertzio ta zertzeladaz egiteko onak eta egokiak.

Motz litzakigu guk geure etxeko otoitzak beeratu ta balio bakotu nai izatea. Inoiz jenteak —erriak—, otoitz egin ezinik, edo zailla dala uste izanik, idatzi egin dabez Jainkoari esan nai izan dautsoezan otoi-saillak. Au lagungarri da, izan. Alan be, ez bedi ifiok uste izan Jainkoari esateko aina otoitz asmetako gauza ez danik. «Nik ezin dot otoitz egin —dinoe batzuk—; nai neuke, baiiia ezin». Ain lotuak al gara, bear doguna Jainkoari eskatzeko? Uler gatxa. Auxe berau be, baina, neurri batean otoitz dozu.

Ba-da beste bide batzuren artean beste au be guk geure buruari otoitzean iraun al izateko: norbere aldezko erregurik kutunena artu ta bera bein eta barriro esan, itzak astiro ta egoki aozkatu, poz-

-atseginerako diranean a tan be. Eta Jainkozko samurtasunaren gozoa, argiari argizaria lez, falta yakonean, urrengo itzera salto egingo dogu, orekin be bardin eginaz, agortu arte edoski, ausnartu ta gozartuaz.

Azkenez, otoitz bitartean ez doguz egungo aitzu bear arnas-artze ta irrika-gurak, erderaz esan, jakulatoriak. «Ene Jainko!», adibidez. Basamortuko lekaide, padar eta bakar-zaleak naiago eben sarri otoitz laburrak egin, luzarokoan jardun baino. Eunka aldiz gauza ber-berak esan. Maite diranak, ez al dabe orixe egiten? Ba-dira ortarako gaiak, otoitz laburrak ain zuzen, guri adimena ta biotza gorantz jasoteko lagungarri yakuzanak, unetxo baten igarri barik Jainkoaz alkarturik jar ten gaituenak.

Gogozko otosfza

Gogoz, biotzez eta pentsamentuz, aoak parte arturik barik, egiten danari deitzen dautsogu gogozko otoitza, edo-ta gogartea. Zeatz-meatz itz-eginik, baina, gogartea ez da besterik otoitzerako gertakuntza bat baino. Ez da otoitza bera, pentsatu ta pentsatu ekin barik be, otoitz-arazoan murgildu gaitkez eta. Ez da zarata askorik atera bear. Ixillean, geure kautan gorderik, otoitz bikaina osotu daikegu. Kristok dinosku: «Otoitz egitean ez ibilli berba ta berba, atzerriarrak lez; oneik zarataka entzunak izango dirala uste dabe. Zuek, ez zaitze izan orrelakoak: ba-daki zuen Aitak zuek bear dozuena» (*Mat.* 6,7-8).

Gogozko otoitza, esan dogunez, Jainkoaz daukagun alkar izketa bat da, autu gozo bat. Ez da kanpotiko ezer, ez da emen zaratarik ateraten, ez dautsegu ezpanai zirkinik eragiten: biotz daragoio bakar-bakarrik maitasuna iruten. Barrutiko edozein egintzaz otoitza. adierazo daikegu, Jainkoagana jasoten gaituna danean beintzat: barnera batzea, burutapen bat, azterketa, adimenezko begitu gozo bat, begiratze naiz ikustaldi bat, gora-begirako biotz-zauskada bat..., sifiist-eidazu, otoitz-arloa da. Zer guztiok Jaunagaz lotzen gaitue. Baita bide batez gu garbitu be, geure izate-muinean egotez daukaguna —Jainkoa bera— gugaz pozago aurkitu daiten.

Sarri irakurria dozu Jainkoak ixillean eta barne-atsedenean berba egiten dauskula. Eta biotzera egin be. Aren itza obeto entzunda, adimena argitu daroasku, biotza sutazi ta naimenari maitasunera

eragin. Orduantxe, egin-eginean be, Espiritu Santuak bere doai eta mesederik bikainenak ixuri oi dauskuz,

Gizasemeen artean ba-dira itz-ontziak eta ba-dira ixillak. Bein epaitegira joan ei zan testigu lez gizon txiki bat eta testiguak egon oi diran lekutik egin ei eban bere testigutza, baina txikia zalako ez ei yakon ezer entzuten. Eta epaikariak, jakina, zoliago berba egiteko esan eutsonean, erantzun ei eutson: «Epaikari jaun!, ni ez naz legegizon; nik ez dot epaitzen; nik pentsatu egiten dot mintzatu aurretik». Beste era batera esanda, arek gogoratu egiten eban lenengo sentitzen ebana. Beraz, otoitz arloan be, asieran batez be, naitaezkoa da gogartea, geure barrua batzeko, aalmenak eskumende eukiteko, ortik zear dabiltzalarik be etxera, gcure kautara erakarteko.

Kanpotiko gauzak, izakiak asko lagundu daikegue suge antzera barruan kiribildu al izateko. Otoitzerakoan au ez bait dogu egundo be aitzu bear, Jainkoa geure barruan dagoala berezi-bereziki. San Agustin luzaro ibilli zan, ara ta ona, Jainkoaren billa, baina azkenik bere barrura jotean idoro eban egi-egiaz. Santa Teresak, ari jarraituz, onela atondu euskun bere barru Gaztelua.

Otoitza f® Santa Teresa

Santa Teresak gaztelu eder bezela iruditzen dau arimea. Atsegin yako irudi au. Gaztetan ikusiak zituan, eta gero be bai, ainbat torree-
-etxe, jauregi ta gaztelu an inguruetan, Avila aldean. Eta giza-arimea olako gaztelua da, eder jaikia. Jainko-graziaz eta doaiez jantzita barrutik eta kanpotik, bizitegi askoz betea, batzuk goian, beste batzuk beian eta inguruetan; erdian, Jainko aundiaren aulkia, dizditsua.

Gaztelu onek egonleku asko daukazan arren, Santa Teresak zazpi aitatzen ditu. Otoitzean jardunez, apurka apurka ba-goaz Jainkoa, gure Errege aundia aurkitzen dan gaztelu erdirantza urreratuz. Izan be, geure arimearen ondarra jotean, ausnartuz eta maitatuz, orduantxe eltzen gara gaztelu erdira, au da, zazpigarren egoitzera, Errege dizditsua bere edertasunean aurkitzen dan, batez be aurkitzen dan lekura. Ementxe alkartu oi dira Jainkoa ta arimea, batasun oso-osoan eginik, alkartu be.

Gazteluan sartzeko, barriz, otoitza bear. Teresak onan: «Nik ulertu dagikedanez gaztelu ontan sartzeko atea otoitza da, eta gogo-

-ausnartzea; ez dot esan nai aozkoa gogozkoa baifio geiago danik, otoitza ba'da, gogoz ausnarturik egin bear da-ta. Izan be, nogaz izketan diarduan, eta zer eskatzen dauan, eta nor dan eskatzen dauana, eta nori eskatzen dautson ez ba'daki, olakoari nik ez dautsot, naiz-ta ezpanak asko erabili, otoitz izenik emoten» *{Egoitzak, 1,7}*.

Aita Onaindia

BURNI JORAKQ, SUTEGIAN,
BA! ERABILTZE IUZEAN,
BA1 AZKAR-AZKARREKOAN...
(Estampados-Forjados delakoan)

REII610 ETXEBERRIA

Txonlta, 12 — E / B A R